

**BIZIKIDETZA DINAMIZATZEKO
BOTERE-HARREMANAK HORIZONTALTZEA
ETA HIZKUNTZA JABEGABETZEA
HAUR HEZKUNTZAN
GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Loiarde Arzallus, Ane.

ZUZENDARIA: Ezeiza Ramos, Ainhoa.

2020

Laburpena

Ikerketa honetan, gaur egun hurrek zein motatako harremanak dituzten eta harreman horietan hizkuntzak zer-nolako garrantzia duen aztertzen da.

Ikerketa gauzatzeko 4 urteko haurren gela bat aztertu da. Horretarako, bi ikerketa-tresna erabili dira: alde batetik, egunerokoa eta bestetik, gelako tutoreari egindako elkarrizketa.

Lan honetatik ondoriozta dezakegu bizikidetzaren dinamizatzeko botere-harremanak birmoldatu egin behar direla, horizontalera eramanez. Bestetik, hizkuntzak izan dezakeen boterea jabegabetu behar dela ikusi da, hizkuntza bat jakiteagatik inor inoren gainetik egon ez dadin. Modu honetan, hizkuntza bakoitzari dagokion lekua emango zaio eta besteen aurrean ez da indargabetuko. Beraz, boterea duen orok botere horri uko egin beharko dio bizikidetzaren dinamizatzeko.

Hitz gakoak: bizikidetzaren, ikaskuntza, botere-harremanak, hizkuntza, jabegabetzea, giroa.

Resumen

En esta investigación se analiza el tipo de relaciones que tienen actualmente los niños y niñas y la importancia del lenguaje en dichas relaciones.

Para llevar a cabo la investigación se ha analizado un aula de niños y niñas de 4 años de edad. Para ello, se han utilizado dos herramientas de investigación: por un lado, el diario y por otro, la entrevista a la tutora del aula.

En este trabajo se deduce la necesidad de horizontalizar las relaciones de poder para dinamizar la convivencia. Por otro lado, se ha visto que hay que desempoderar los idiomas para que nadie esté por encima de nadie por saber una lengua. De este modo, se dará a cada lengua el lugar que le corresponde y no se debilitará frente a las demás. Por lo tanto, quien tenga poder tendrá que renunciar a ese poder para dinamizar la convivencia.

Palabras clave: convivencia, aprendizaje, relaciones de poder, lengua, desempoderamiento, ambiente.

Abstract

This research goes over the type of relationships that children currently have and the importance of language in those relationships.

In order to carry out this research, a classroom of four-year-old children was analyzed. Two research tools have been used for this purpose: on one hand, the diary and on the other, the interview with the classroom tutor.

In this work, we deduce the need to reconvert power relations to boost conviviality, transferring them to the horizontal. On the other hand, it has been seen that is necessary to disempower the power that a language may have so that no one is above anyone because they know a language. In this way, each language will be given its rightful place and will not be abrogated in relation to the others. Therefore, everyone who has power will have to give up that power to make conviviality more dynamic.

Keywords: conviviality, learning, power relations, language, disempowerment, environment.

AURKIBIDEA

1. Sarrera eta justifikazioa	4
2. Marko teorikoa	6
2.1. Bizikidetza eta eskola	6
2.1.1. Errespetua	6
2.1.2. Autonomia	7
2.1.3. Ikaskuntza indibiduala eta soziala	8
2.1.4. Ikaskuntza kooperatiboa	9
2.2. Harremanak	10
2.2.1. Gaur egungo harremanak	11
2.2.2. Jabegabetzea, autoerregulazioa eta kapitalismoa	12
2.3. Bizikidetza, kultura-aniztasuna eta gatazka	14
3. Helburuak	18
4. Metodoa	19
5. Emaidzak	22
6. Ondorioak	26
7. Mugak eta hobekuntza proposamenak	27
8. Erreferentzia	28
9. Eranskinak	31

1. Sarrera eta justifikazioa

Bizikidetzaren inguruko gaiarekin zerikusia duen hautua egin dut, eskola, eragile soziala delako eta beraz, oso garrantzitsua haurraren garapenerako.

Eskolako etapa guztiek milaka helburu dituzte urtean zehar lortzeko, baina hauek guztiak helburu akademikoak dira, ikasleen benetako ongizatean pentsatu gabeak.

Gelan bizikidetzaren egokia sustatzea oso garrantzitsua ikusten dut, inguruan dauden pertsonak ongi ezagutu eta estimatzeak, afektua sortzen duelako. Afektu hori, oso garrantzitsua da haurraren bizitzan, babestua dela sentitzen delako. Eta hortik, bere buruarekiko konfiantza handituko da.

Gainera, beharrezkoa ikusten dut gelan giro ona izatea, ikasleak gusturago egongo baitira eta horrek ikasketa berriak bultzatzera eramango baitu. Ikaskuntza horretan, besteengandik ikasi dezaketela ohartuko dira eta sortzen den aniztasuna positiboa izan daitekeela. Izan ere, pertsona guztiak ezberdinak dira besteengandik eta ezinbestekoa da gizakien arteko diferentziak egoki maneiatzea.

Haurrak jakin behar du gizartearen partaide aktibo bat dela eta eskolak bere aldetik, hori bultzatu behar du. Horrexegatik ikusten dut garrantzitsua eskola barruan bizikidetzaren egokia ematea, gerora begira, horrek gizartean eragin positiboa eragingo duelako.

Bestetik, eskola eragile soziala delarik, haurrak lehenengo harremanak sortuko ditu familietatik at. Harreman berri horiek sortzeko, eskolak inguru segurua izan beharko du, lagungarria izango zaiona haurrari.

Unibertsitateko lau urte hauetan, hainbat gauza ikasi ditugu: ikastetxearen kudeaketa, musika, psikomotritateak, matematika, komunikazio tresnak... Baina haurraren sozializazioa garrantzitsua ikusten dudanez, bizikidetzaren inguruan ikertzea aukeratu dut.

Egunik egun, haurraren ongizateak gehiago arduratzen nau. Haurrak zer motibatzen duen, zer nolako harremanak sortzen dituen... Arrazoi honegatik bizikidetzaren inguruan gehiago jakitea da nire helburua. Modu honetan, pertsonei garrantzia emanez, baita hauen erlazioei ere.

Ikuspegi akademikoa alde batera utzi eta ikuspegi soziala arakatu nahi izan dut. Haurraren ingurune soziala ahalik eta onena izan dadin, ingurua eta pertsonak oinarri izanik. Inguruko giroari garrantzia handia ematen diot, ingurua egokia bada haurra libreza izan daitekeelako eta bere garapanarekin aurrera jarraitu, ezerk oztopatu gabe.

Horretarako, hezitzailearen papera ezinbestekoa da. Hezitzaileak haurrak beharrezkoa duena eman ahal izateko, bizikidetzaren tresnak ezagutzea beharrezkoa ikusten dut haurraren onurarako. Honela, haurra errespetuz erlazionatuko da eta beharrezkoa duen afektua lortuko du harreman afektiboak eraikiz. Bestetik, gatazkak kudeatzeko tresnak beharko ditu, hurrek gatazkak beraien artean argitzeko eta horretatik gauza positiboak lortuz. Azkenik, horrek guztiak, talde lanean aritzeko trebetasuna garatuko du.

Azken finean, hurrek eraikiko duten bizikidetzaren beren arlo sozialean eragin handia duenez, eskolan esperientzia ona izan dezaten nahiko nuke, nahiz eta jakin eskola ez dela elementu bakarra. Izan ere, familiaren eragina oso garrantzitsua da, familien barruan egoera ezberdinak daude eta haur bakoitza bere bizipenekin joaten da eskolara, hau da, haur bakoitzak gainean duen motxila darama eskolara. Hortaz, eskolak ezin duenez familiarengan eragin, haurrak eskolan dauden tarte horretan haurraren ongizatean pentsatu beharko du. Hurrek izan dezaketen eskolako esperientzia hezitzaileen esku dago. Beraz, bizikidetzaren inguruan aztertuz gero, haurrari erraminta gehiago eskaini ahal izango zaizkio.

2. Marko teorikoa

2.1. Bizikidetza eta eskola

Gizakia betidanik taldean bizi izan da, pertsonen inguraturik. Gaur egungo gizartean ere hala gertatzen da, gizakiak, izaki soziala izaten jarraitzen duelako. Gainera, kontuan hartu behar dugu eskoletako gela bakoitzean, gizartearen isla irudikatzen dela. Beraz, zer hausnartu badugu.

Gela bakoitzean orotariko haurrak daude, etnia, sexu, izaera... ezberdinekin. Eskolako erronketako bat, hortaz, haurren bizikidetza bermatzea izango da. Delorsen (1996) aburuz, eskolaren bermea, ikasle bakoitzaren ezaugarri guztiak kontuan hartuz, batera bizitzen ikastea eta norbera izaten ikastea da.

Aurretik esandakoa beteko balitz, eskola bizikidetzarako eremu bilakatu, herritar arduratsu, aktibo eta kritikoak eratuko dira, gizarte kohesionatu bat osatuz (López Martín & García Raga, 2006).

Bestetik, Iannik (2003) adierazten duen moduan, eskola, hezkuntza erakunde gisa, gizarte batetik abiatuta dago eta modu berean, gizartea adierazten du.

Beraz, gelan ikusitakoa gizartearen isla izango da. Haurrentzat, eskola oso garrantzitsua bihurtzen da eskolaratzen direnetik, izan ere, eguneko ordu asko igarotzen dituzte bertan eta honek, bide ematen die pertsona ezberdinekin espazioak partekatzeko. Denbora eta espazioaren bitartez, haurra erlazionatu egingo da inguruko ikasleekin, harremanak sortuz eta esperientziak elkarbanatuz.

Ondorioz, garrantzitsua da errespetua, autonomia, ikaskuntza kooperatiboa eta ikaskuntza indibidual eta sozialaren gainerako kontzeptuak ongi ulertzea, bizikidetzarekin zerikusia baitu.

2.1.1. Errespetua

Harremanak sortzen direnean argi izan behar da beste pertsona errespetatu behar dela, izan ere, errespeturik gabe ez dago harreman zentzudunik. Errespeturik ez izateak harremana hautsi dezake. Harreman batean, ondoan dagoen pertsonari

lekua eman behar zaio, babesa eman, errespetatuz eta onartuz. Horregatik, eskolan ere landu beharreko gaia da.

Izan ere, “harmonia, bizikidetzaren, errespetua eta eskola diziplina hezkuntzaren xedeak lortzeko funtsezko elementuak dira, eta, are gehiago hezkuntzaren balore eta jarrera sozialetan daude errespetu eta bizikidetzaren arau eta legeak, hezkuntza sistemaren helburu eta zeharkako edukietan bezala” (García Correa & Ferreira Cristofolini, 2005, 165. orr., itz.).

Errespetuak zerikusi handia du bizikidetzarekin, bizikidetzaren egoteko ezinbestekoa baita errespetua. Bide batez, Maturanak (1992) dio,

Hezteko prozesuan haurra beste batekin bizi da eta elkarrekin bizitzean, haurraren bizitzeko moduak bat egingo du bestearekin bizikidetzaren espazioan. Haurrak ezin badu moldatu ezta bere burua errespetatu ere, ezin izango du bestea errespetatu. Beldurtu, jeloskortu edo bestea gutxietsiko du. Modu honetan, ez du onartuko ez eta errespetatuko ere, eta hortaz, bizikidetzaren ez da gertakari sozialik egongo. (11. orr., itz.)

Maturanak esaten duen harira, lehenik eta behin, norberaren burua errespetatu behar da besteak errespetatu aurretik. Norbere buruarekin bat joan behar du, bere barrualdea ezagutu eta onartu. Ondoren, besteak ezagutu, onartu eta errespetatzeko garaia izango da. Geroago, nahi izanez gero, errespetuan oinarritutako harremana sortzeko aukera egongo da.

2.1.2. Autonomia

Taldean aritzeak besteekin elkarlanean ibiltzea suposatzen duenez, bakoitzak bere autonomia izaten jarraitzeko aukera duen jakiteko, Agirre Dorronsorok (2018) dio,

Taldea egiteko, taldekideek autonomia handia behar dute. Ez daude kontrajarrita taldea eta autonomia; aitzitik, bata bestea behar du. Besteekiko lotuta eraikitzen gara pertsona autonomo gisa. Loturarik gabeko autonomiarik ez dago (...). Autonomia eta askatasuna

elkarrenganako konpromisoa baino ez dira. Autonomo izateko, taldean aingura ondo, oso ondo eta oso hondora botata eduki behar da. Alegia, konfiantzan errotuta, eta konfiantza besteak ematen dizu, besteak, atxikimenduek, loturek. (7. orr.)

Bide beretik, Illichek (2003, 471-483. orr., itz.) *convivencialidad* hitza erabiltzen du, bakoitzaren autonomiarekin zerikusi zuzena duena. Izan ere, “bizikidetzak askatasun indibiduala da (...) erraminta efizientea duen gizartearen barnean. (...) Bizikidetzazko gizarte batek gizakiari ekintza autonomoak egiteko aukera ematen dio, besteak gutxiago kontrola ditzaketen erraminten laguntzaz. Emankortasunak edukitzea adierazten du (*tener*) eta bizikidetzak izatea adierazten du (*ser*)”.

2.1.3. Ikaskuntza indibiduala eta soziala

Gelan, bizikidetzak egoera eratzen bada, haurrak gustura egongo dira gelan eta erraz sortuko dituzte harreman berriak. Harreman hauek, haurren izaera garatzen lagundu ez ezik, irakaskuntzarako ere oso baliagarria izan daiteke. Izan ere, bizikidetzak eta ikaskuntzak elkar baldintzatzen dute. Kausalitate zirkularrak bien arteko erlazioa ulertzera ahalbidetzen du: bakoitza beharrezko baldintza da (berez nahikoa ez bada ere) bestea emateko (Ianni, 2003).

Ikasleak izaki sozialak diren heinean, harremanen bitartez ikasketa esanguratsuak gauzatuko dituzte. IK/KI programak (2016, 11. orr.) adierazten duen bezala, “persona gehienek gehiago eta hobeto ikasten dute jardueretan beste pertsona batzuekin batera parte hartzen dutenean, intelektualki akuilagarri zaielako eta konfiantza ematen dielako jakiteak besteen laguntza izan dezaketela elkarrekin ikasten badute”.

Hau dela eta, ikaskuntzak duen garrantzia aintzat hartuz, ikaskuntza indibidual zein soziala bat datozela kontuan hartzen badugu, errazago barneratuko dituzte ikasleek ezagutza berriak. Gainera, bitartekaritzen papera ere funtsezkoa da. Hau honela izanik, Davinik (2008) azaltzen du,

Ikaskuntza prozesu indibidual eta sozialen bitartez ematen da, nahiz eta emaitza indibiduala izan, bitartekaritza sozial aktiboaren beharra du garatzeko. Bitartekaritza hori helduaren eragina, irakaslearena, besteekin elkarreraginez edo truke sozial eta erraminta kulturalen bidez izan daiteke. Bitartekaritza eragin soziala da orduan, ikaskuntza indibidualaren baldintza prozesu honetan laguntzeko. (...) Ikaskuntza indibidualaren enfasiak ahaztera eraman du ikaskuntzaren emaitza prozesu aktibo, parte-hartzaile eta sozialaren emaitza dela. (...) Giroak eta besteekiko harremanek paper garrantzitsua dute, hizkuntza bidezko hartu-emanek barne. (35-36. orr., itz.)

Davinik lehenago aipatu ez den gakoetako bat ematen du: giroarena. Izan ere, ikaskuntza gertatzeko ezinbestekoa da honi lagunduko dion giroa izatea, bestela, ikaskuntza zaildu edo eten egingo litzateke. Giroa aipatzen duenean ez da baliabideez bakarrik mintzo, elkarreragin erak eta taldearen hartu-emanak barne hartzen ditu.

Hau guztia kontutan hartuta, Davinik (2008), *ikaskuntzaren ekologiaren* metafora erabitzen du, sistema sozial, giro, giza baliabide eta elkarreraginen modura zein ikaskuntzaren baldintzak errazten dituen.

Beraz, ikaskuntza berriak eman daitezen, haurraren ingurua garrantzitsua dela aipatzen denez, hezitzaileak haurrari ingurua zaindu beharko du, gela, materiala, giroa...

2.1.4. Ikaskuntza kooperatiboa

Munduan zehar, ikaskuntzarako hainbat metodologia daude baina bizikidetza bermatu nahi bada, aukera ezin hobea litzateke egitura kooperatiboan egiteko; beraien arteko elkarlana eta errespetua sustatzeko. Honelako egituretan, "ikasle bakoitzak irakasleak irakatsitakoa ikastea ez ezik, bere taldeko ikaskideek ere ikas dezaten laguntzea bilatzen da, alegia, guztiek taldean lan egiten ikastea (IK/KI, 2016, 13. orr.). Modu honetan, "talde-lana, elkartasuna eta elkarri laguntzea, desberdinarekiko errespetua edota bizikidetza berezko balioak dira, balio onak,

ikasleek eta beren familiek eta gizarteak, oro har, estimatu behar dituztenak” (IK/KI, 2016, 21. orr.).

Marina eta Bernabeuk (2007) argi dute:

Zergatik da hain garrantzizkoa kooperatzen eta elkarrekin lan egiten ikastea? Mendebaldeko gizarte garatuetako tradiziozko hezkuntzak, denbora luzean, balio handiagoa eman dio gizabanakoaren lorpenari, taldearen lorpenari baino. Ikasleen arteko lehiakortasuna bultzatzen da. «Ikasgelako lehena» baldin badago, «azkena» ere egongo da: irabazleen eta galtzaileen logika da, oihaneko legea, eskolaren barruan. Mota horretako hezkuntzaren emaitzak mugatuak dira, ikasleek ez baitute gizarte-gaitasun ona lortzen. (77. orr., itz.)

Esandakoaren harira, ikaskuntza indibidualaren kasuan, bakoitzak bere lorpenei begiratzen die baina bizikidetzari balorea ematen diona taldearen lorpena da. Nire ustez, bai ikaskuntza indibiduala bai soziala ezinbestekoak izan behar dira. Gainera, taldean ibiliz, ikasleen arteko lehiakortasuna murriztu liteke eta taldearen sena, aldiz, indartu. Bestetik, lehiakortasuna bultzatzen den ikaskuntza batean, nekez egongo da giro osasuntsua.

Egitura kooperatibo batean hortaz, taldean lan egitea bada xede, taldeak egiteko irizpideak egon beharko dira. Argi dago taldea osatzeko garaian, talde heterogeneotan banatzeak gehiago lagunduko duela talde homogeneotan egon baino. Izan ere, talde heterogeneo batean ikasle profil desberdinak egonik, aniztasunak balio handia izango du. Talde heterogeneoak egiteko garaian, IK/KIren (2016) arabera,

Normalean ikasketa kooperatiboko taldeak lau ikaslek edo, gehienez, bostek osatzen dituzte. Taldeen osaerak heterogeneoa behar du izan (generoaren, etniaren, interesen, gaitasunen, motibazioaren, errendimenduaren, autonomiaren eta abarren aldetik). Hein batean, talde bakoitzak gela osoaren ezaugarriak islatu behar ditu. Gaitasun-errendimendu-autonomia-interes-motibazioari dagokionez,

ikasle batek alderdi horietan maila jasoa izan dezan saiatuko gara, talde osoarekin alderatuta, beste bi ikaslek maila ertaina izango dute eta beste batek maila baxuagoa. (33. orr.) (IKUS ERANSKIN 1)

2.2. Harremanak

Argi dago gizakiak bizitzan zehar harreman ezberdinak eraikitzen dituela. Lehenengo harremana gurasoekin izaten da eta bigarrenik, eskolan. Txikitatik ikusi eta irakatsitako harremanek eragina izaten dutenez gerora, eta horregatik, gaur egungo harremanak nolakoak diren ezagutzea lagungarria izan daiteke sakontasunez ulertzeko.

Bestetik, aintzat hartu behar da kapitalismoan murgildua dauden herrialde guztietan harremanak izateko erak aldatu egin daitezkeela. Hori dela eta, kapitalismoak duen eragina aztertu behar da eta irtenbide bat eman.

2.2.1. Gaur egungo harremanak

Illichen (2003) pentsaeran ikus daiteke, harremanak izateko moduak aldatu behar direla, harreman horizontalak lehenetsiz. Kontua ez da pertsonak aldatzea, harreman moduak aldatzea baizik. Orobat, Zupiriak (d.g) honela dio,

Harremanek era batekoa egingo dute pertsona. Pertsonak era bateko harremanak eraikiko ditu, eta harreman horiek eragin bat izango dute nortasunean. (...) Ez da kasualidadea egiten ditugun harreman gehienak antzekoak izatea. Harremanak era batera egiten ikasi dugu. Harreman berriak egitean, dakigun bezala egiten dugu. Lasai aurkitzen bagara, gure harremanak egiteko era indartu egiten da eta erraza da harreman hori mantentzea. Harreman berrian deseroso aurkitzen bagara, gure harremanak egiteko erak ez du funtzionatu. Orduan bi gauza gerta daitezke: aldatzen dut edo harremana bertan behera uzten dut. Gehienetan bigarrena egiten dugu. Beraz, beti bezala jarraitzeko joera dugu. Ezaguna egiten zaigunarekin jarraitzeko joera dugu. (15-16. orr)

Esandakoa kontuan hartuz, ikus daiteke gizabanakoari ezezaguna egiten zaion oro, ez duela gustuko. Bestetik, ikus daiteke egokitzeko zailtasunak dituela eta horregatik aukeratzen duela harremana uztea. Jarrera honetan argi ikus daiteke izaki indibidualistak sortu direla eta taldean aritzeko esfortzua txikia egiten dela.

Azken batean, gizarte kapitalistan bizi garen honetan oso zaila da taldean aritzea, kapitalismoak egozentrismoa dakarrelako. Gizarteko kide direnak alde batera uzten dira norbanakoaren ongizatea bilatzeko. Horrexegatik, Agirre Dorronsorok (2018) ohartarazi egiten du:

Kapitalismoa gero eta bortitzagoa da gurean. (...) Kapitalismoak berarekin dakartzan balioak dagoeneko gure balio bihurtu ditugu. (...) Lehia, muturreko indibidualismoa, meritokrazia, merezi duguna lortzen dugula sinestea, erabateko uniformazioa milioika koloretako merkatu batean... (...) Eta hori dena, bai autonomiaren, bai taldetasunaren, bai komunitategintzaren kontrako joko-eremu bat da. Taldean ez bagaude, gure izatea oso gauza manipulagarria izan daiteke. (7. orr)

Kapitalismoari aurka egiteko saiakeran, Pahkinek (2018), Finlandiako Hezkuntza Nazionaleko aholkulariak dio, beren sistemetan harremanak daudela erdigunean. Gainera, besteekiko harremana, norberaren zaintza eta bestearen zaintza erdigunean jartzea dela kontua.

Harreman afektiboak zaintzeko proposamenarekin, Boffek (2002, 19. orr., itz.) honela adierazten du: “zaintzak gure gorputza zaintzea ez ezik, gure erlazioak ere zaindu behar dira, horrela, pertsona heldu, autonomo, jakintsu eta askeak izateko”. Ideia honi jarraituz, zaintzaren eskutik, gauzen balore intrintsekoa berreskura dezakegu, balore utilitarista desagertuz eta modu honetan beste bat izateko aukera, errespetua edo elkarrekikotasuna agertuz (Álamo Santos, 2011).

Hau guztia saihestu ahal izateko, eskolak lehen mailara eraman behar ditu gelako harremanak eta bizikidetzak. Modu honetan, kapitalismoak ekartzen duen ideia desgaituz. Eta bide batez, balio intrinsekoa berreskuratuz.

2.2.2. Jabegabetzea, autoerregulazioa eta kapitalismoa

Kapitalismoak duen boterea hausteko asmoz, jabegabetza terminoa sortu da. Encinak eta Ávilak (2015) hauxe diote,

Jabegabetzea boterea uztea baino ez da (*“hacer dejación”*) (behekoenganantz eta ingurune sozial eta naturalarekin harmonian) eraikitze kolektiboa ahalbidetuko duena. Botere uzte hau bizitzaren edozein eremutan egin daiteke (familia harremanetan, lagunartean, lanean, elkartasunean...), banakakoa izan daiteke (ni aita/ama/semere/alaba gisa..., ni adiskide gisa, ni nagusi gisa, edo irakasle gisa, edo mediku gisa, edo funtzionario gisa, edo aktibista gisa...), kolektiboa izan daiteke. (...) Boterea uzteak eragiten duen egoera berriaren lehen unean nahastea eta kaos sortzailea pizten da, hortik berehala horizontalitateen lehen hastapenak sortzen dira eta ikusezintasun prozesu bat hasten da; horrek denak boterearen *conduit*-a eragozten du, ez baitu aurkitzen egite bat eraman ahalko duena, baizik eta elkarren artean josiak dauden sentitze, pentsatze eta egiteen magma bat, ez dirudiena inora doanik. (88. orr.)

Aipatu berri den jabegabetzearen bitartez, harreman bertikalak desegin eta bide batez harreman horizontalak sostengatu egingo dira. Harreman horizontal honetan, ni eta zu, gu gara. Gainera, “horizontalitate sortu berri hauek mundu-ikuskerak holistikoa berreskuratzen duten kultura herrikoien uholde berria eragiten ari dira, kulturaleraino gain, alderdi ekonomikoak eta sozialak barneratzen dituztenak” (Encina & Ávila, 2015, 89. orr.).

Beraz, argi dago, gaur egun indarrean dagoen sistema ez dela egokiena eta aldaketa sakona eskatzen duela. Horregatik, Camisonek (2018, 25. orr.) bere aldetik, “bizi ditugun gizarte-antolaketa eta kultura horiek ez dute errazten gure artean harreman osasungarriak sortzea, gizakiaren ongizatea ez delako oraindik ere lehentasun, helburu eta ardatz”. Harreman osasuntsuak eraiki ditzagun autoerregulazioa proposatzen du:

Izaki bizidunek euren funtzioak modu espontaneoan erregulatzeko duten gaitasunari egiten dio erreferentzia autoerregulazioak. Sentitzen duenarekin eta oinarrizko behar biologikoekin kontaktuan egotea litzateke xede; hala, behar horiek ase ditzan eta ongi bizi dadin. Hau da, norberarekin, besteekin eta munduarekin harreman osasuntsuak eraikitzeke gaitasuna izatea. (25. orr.)

Autoerregulazioa erronka bat izan daiteke, egungo errealitatean betetzeko. Izan ere, autoerregulazioak ingurune egokia behar du garatzeko. Ablanedok (2018, 17. orr.) ere gauza bera proposatzen du, “direktibotasunaren ordezt, autoerregulazioaren ereduak proposatzen dugu. Haurrak inguratzen dituzten ekosistemen kalitatea neurtzeko, eredu horri zenbateraino hurbiltzen zaizkion aztertu beharko da, zenbateraino uzten zaion haurrari bere bidean egile izaten, beste batzuek egindakoak erakutsi ordezt”.

Horrenbestez, bizitza osoan zehar eraiki ditugun harremanak birmoldatu behar ditugu. Harreman asimetriko/bertikalak deseraikiz eta, bide batez, kalitatezko harremanak sortuz, horizontalean beti ere. Ablanedok (2018) gainera, harreman bati kalitatearen bermea ematen dion ezaugarri nagusietako bat errespetua dela gehitzen du. Beraz, harremanen gakoa pertsonen arteko errespetua da. Izan ere,

Egun eta hemen indarrean den heziketa-ereduaren helburua haurra eredu baten arabera modelatzea da, gizartearen balio eta beharretara ahal bezain laister eta ongien egokitzea. Eredu horrek dakartzan ondorioak zein diren jakin nahi badugu, ez dugu urrutira begiratu behar. Gu geu gara (...) eredu horren isla. (17. orr.)

Bere horretan, Freirek (2018) berdintasunezko harremanak lortzeko, noranzko bakarreko roletatik, bi noranzkoak bihurtzera iritsi behar garela baieztatzen du.

Beraz, argi dago indarrean dagoen heziketa ereduak ez duela bat egiten orain arte proposatuarekin, hau da, harremanak lehen planora ekarriz. Kapitalismoak

izugarrizko eragina du gizartean, eta nola ez eskolan. Eskolak oso lotuta daude kapitalismoarekin. Horregatik, kapitismoan oinarriturik hezten dira haurrak.

Kapitalismoa sistematik at utziz eta lehenago aipatu dena aplikatuz gero, eskolak haur osasuntsuak heziko lituzke. Haurraren ongizatea bermatuko litzateke, haurraren testuingurua ezagutu eta harremani garrantzia emanez.

2.3. Bizikidetzak, kultura-aniztasuna eta gatazka

Dakigun moduan, “eskola elkarbizitzarako lekua da, eta beraz, gatazkak sortzen diren lekua. Kultura-aniztasunak, dudarik gabe, areagotu egiten ditu gatazkak sortzeko aukerak” (Aguilar & Ruiz de Lobera, 2006, 31.-32. orr.).

Honen harira, Barquinek (2006), honakoa adierazten du:

Immigrazioak berekin dakar taldeak-etorkinak eta autoktonoak-harremanetan jartzea, eta elkartrukeak ez dira beti gatazkarik gabekoak izaten: beldurrak eta mesfidantza sortzen dira bi aldeetan. Eta horien aurrean “ezer ez egiteak” ondorioak dakartza: esku-hartzea ezinbestekoa da harremana modu positiboan eraikitzen joateko. Kulturaztasuna bada, izan ere; hainbat jatorri kulturalako pertsonak espazioa partekatzen dute. Baina esan behar da hainbestetan aipatzen den “kulturartekotasuna”, alegia, pertsona horien arteko harreman positiboa, ez dela berez loratzen den lore bat. (34. orr.)

Gela barruan gatazkak eguneroakoan ikus daitezke. Aguilar eta Ruiz de Loberaren (2006) ustetan,

Gatazka berez ez da ona ez txarra, nola aurre egiten zaion da kontua. Gatazka jaio egiten den prozesua da, bere kausak ditu; hazi eta ikusgai bihurtzen da (...), zer ikasi berriak sortzen dira, eta bakean bukatzen da; edota sentimendu suntsigarriak sortzen dira, eta jokabide bortizetan bukatzen da. (32. orr.)

Gatazkak era positiboan ikus daitezke, modu eraginkor batean ebazten bada. Beraz, gatazkarik ezean, ez legoke aldaketarik. Baliagarriak izan daitezke norberaren, taldearen eta gizartean aldaketak eragiteko.

Bizikidetzaren bermatzeko eta ikasleak egoki integra daitezen, Barquinen (2016) ustetan,

Euskara erabateko integrazioari lotuta dago; integrazioa ez bada erabatekoa, hemen bizitzeko ez da gaztelaniaz jakin beharrik ere izango. Nahikoa izango da gaztelaniazko hitz batzuk jakitea bakarrik. Izan ere, mezu hau zabal dezakegu: gauden gizartean erabateko integratzearen ezinbestekoa da euskara jakin eta erabiltzea. Baina, jakina, horrek egia izan behar du: alegia, integrazioa erabatekoa izatea, eta ez azaleko integrazioa. (42. orr.)

Izan ere, Barquinen (2018) ustez,

Etorrinen seme-alaben eskolatzeak ondorioak izan ditu ikastetxeetan: kolokan jarri ditu antolakuntza, metodologia, lan egiteko modua eta ohitura batzuk... Birpentsatze hori oso onuragarria izan da ikastetxe horietan dauden ikasle guztientzat, ez soilik etorkin jatorrikoentzat, aniztasuna hobeto kudeatzen ikasteak ikasle guztiengan duelako eragin positiboa. (47. orr.)

Beraz, eskolak zenbait hutsune dituela ikusi ondoren, eskolak aldaketa integrala behar du. Ikasleak hezkuntzaren protagonistak izan behar dira eta pertsonak izan behar dute lehentasuna. Ikasleen beharrei erantzuna emango zaion eskola.

Eskolek, matrize soziokulturalaren arabera segregatzen dituzte ikasleak (Encina, Ezeiza & Delgado, 2019). Hau da, haurrek berekin ekartzen dituzten ezaugarriak hartzen dituzte kontuan, sexua, adina, etnia, maila sozioekonomikoa eta abar. Honen harira, Barquinek (2009/10) baieztatzen du,

Dakigunez, eskola inklusiboaren helburua ez da ume guztiak “ume estandarren” trokelera eramatea; ume bakoitzak bere ezaugarriak dituela kontuan hartzen du. Aldi berean, eskolak ezagutzen ditu, estimulatzen ditu eta erabiltzen ditu, ume bakoitzak bere dohainak eta gaitasunak ahalik eta hobekien gara ditzan. Eskola horrek komunitatearen zentzua sustatzen du, parte izatearen eta onartua izatearen zentzua. Argi dago eskola inklusiboa utopia bat dela. (31. orr)

Era honetara, ezin daiteke bizikidetza eman, baldin eta oraindik ere eskolak segregatuak egon. Haurrak segregatzen jarraitu ezean, gizartea bananduko litzateke eta hortaz, pertsonen arteko elkarbizitza oztopatuko litzateke, gizartea guztiz hautsi eta segregatu arte.

Horrexegatik, Encinak eta bestek (2019) diote, berdintasunean eraikitzeko autoestimua landu beharra dagoela, IZA(N)etik EGO(N)tera pasaz, matrize soziokulturalak eragindako segregazioak onartuz eta segregazio soziala dagoela aitortuz. Segregaziotik mestizajera pasaz. Modu honetan, bakoitzak duen identifikazio indibidual, talde eta kolektiboan lagunduko du, autonomia eta elkarren menpekotasunetik abiatuz.

Idea honi jarraituz, eskolak identifikazioak eta bizikidetza oinarri hartzen baditu, zaintzak jarri behar ditu erdigunean, denon artean konfiantza, askatasuna eta itxaropena eraikiz. Identifikazioaren kasuan, beste pertsonekin puntu komunak izan ditzaketela aurkituko da non harreman berrien bidea erraztuko den, baita desberdintasunak ere, pentsaera berriak eraikitzen lagunduko dutenak. Bestetik, zaintzek erantzuna emango diote taldearen beharrari (Encina et al., 2019).

Era honetara lan eginez, alegia, harremanak lehenetsiz eta edukiak bigarren mailan kokatuz, gure inguru sozial eta naturalarekin harmonian eta pertsona ezberdinekin elkartzeko aukera izango genuke. Honela, gure beharrei erantzuna emango diegu, giza eta natura eskalaren garapena eraikiz (Max-Neef, 1994).

“Ikuspegia aldatu behar da, mezua ulertzetik (utilitarista), hartzailera ulertzera (bizikidetzeta) pasatu behar da. Hau da, harreman moduak lehen mailan kokatuz eta bigarrenera aldiz,(...) bere edukia” (Encina et al., 2019, 120. orr., itz.).

Honenbestez, ikasleei beraien hipotesi komunikatiboak besteekin egiaztatzeko aukera ematen badiegu, aukera gehiago izango dituzte garapen pertsonal zein sozialerako. Konfiantza handiko giroan eta forma ezberdinetako komunikazioak eta erlazioak dinamizatuz, ikaskuntza aberatsagoa izango da, bai linguistikoki bai bizikidetzarako (Jorba, 2000). Konfiantzazko giro hori lortzeko, beharrezkoa da egitura horizontala eta matrize soziokulturalaren elementuren bat edukitzeagatik boterea sentitzen duten pertsona ororen jabegabetzea.

3. Helburuak

Ikerketa honen helburua, galdera hauei erantzuna ematea da. Hauek dira planteatutako galderak:

- Gela barruan bizikidetzak zertan lagundu dezake?
- Eraikitzen ditugun harremanak antzekoak izaten dira?
- Hizkuntzak (komunikazio tresna gisa harturik) zer nolako garrantzia du erlazioak eraikitzekeo garaian?
- Nolako eragina izan dezake gatazkak?
- Eskolako metodologiak eraginik al du erlazioak egiterako garaian?

4. Metodoa

Garatu dudan ikerketa honen metodo gisa, kasu azterketa erabili dut. Kasu azterketa honetan hainbat alderdi daude kontuan hartu beharrekoak:

Taldea: kasu azterketa honetan 23 ikaslez osatutako 4 urteko talde batek hartu du parte, 12 neskek eta 11 mutilek eta gelako tutoreak (Lierni Otaegui).

Ikerketaren epea: ikerketa hau osatzeko, hamaika asteko behaketa gauzatu dut, partaideen portaera, jarrera, ekintzak eta abar aztertuz.

Kokapena eta testuingurua: behaketa hau Gasteizko auzo berri bateko ikastetxe batean burutu dut. Ikastetxeko ikasle hauek, familia gazteen seme-alabak dira. Gainera, familia hauek maila sozio-ekonomiko erdi-baxukoak dira. Familien ikasketak, orohar, DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketako Zikloak dira. Bestalde, eskolan, kultura eta herrialde ezberdinetako familiak daude, 2018/19 ikasturtean esaterako, familien %28 etorkinak ziren, gehienak marokoarrak, aljeriarrak, Europa ekialdekoak eta hego-amerikarrak. Beraz, eskolako egoera soziolinguistikoari begira, euskara eta gaztelaniaz gain, beste hizkuntza batzuk entzun daitezke auzoan zein eskolan; arabiera, ingelesa...

Eskolan, proiektuen bidezko metodologia dago indarrean. Funtsean, irakasleak gidaturiko talde txikietan garatzen den eta ikaslea erdigune hartuta dagoen ikaskuntza gisa defini daiteke; horren helburua, ikasleen interesetatik, esperientziatik eta ezagutzatik jalgiriko problematika bati erantzuna ematea da, adiera praktikoan, prozesua ixten duen produktu baten bitartez (Hik Hasi, 2009). Gainera, ikaskuntza kooperatiboa ematen da IK/KI programaren bitartez, elkarreragin soziala ezinbestekoa delako haurraren garapenerako. Programa honetan taldekatzeak egiteko zehaztasunak ematen dira besteak beste.

Eskolako metodologiaren bitartez, haurrak elkarlanean aritzen dira, momentu askotan talde lanean arituz. Ikaskuntza prozesuan zehar, ikasleak elkar laguntzen dira, negoziatzen dute, elkar ikasten dute, elkar animatuzten dira, batak besteari

gehiago ezagutzeko aukera ematen du eta harremanak hobetzeko baliagarria da (IK/KI, 2016).

Ikerketa-tresnak: ikerketaren informazioa jasotzeko bi tresna ezberdin erabili dira: alde batetik egunerokoa (IKUS ERANSKIN 2) eta bestetik elkarrizketa (IKUS ERANSKIN 3). Egunerokoari dagokionez, 2019ko azaroaren 29tik, 2020ko urtarrilaren 24ra artean hartutako oharrak dira. Egunerokoa nirekin eramaten nuen momentuoro eta gertaera kritikoren bat gertatzean koadernoan idazten nuen, egunean 2-3 ohar idatziz. Behaketa prozesua bukatu ondoren, egunerokoa erredaktatua izan zen.

Elkarrizketari erreferentzia eginik, gelako tutoreari egin nion, hau da, Lierni Otaegui. Egindako elkarrizketak 15 minutuko iraupena izan zuen eta jolas-ordua baliatu genuen hura egiteko. Hizketaldia gelan egin zen eta grabaketaren bidez erregistratu nuen, ondoren elkarrizketa paperean erredaktatuz. Galdera irekiak egin ziren orohar; gaiarekin zuzenean lotuta ez zeuden galderak egin ziren, gelaren egoera ikusi ahal izateko; beste galdera batzuk tutorearen enfokea behatzeko erabili nituen; eta noski, lanaren nukleoari dagozkion galderak ere egin nizkion.

Hamaika asteko behaketaren ostean, hauxe izan da ikerketako informazioa analizatzeko prozedura:

1. Pausoa: Egunerokoaren irakurketa globala egin da eta hortik, informazio hautaketa egin da, hau da, adierazgarriak direnak eta adierazgarriak ez direnak bananduz. Adierazgarria izateko irizpidea: behin baino gehiago errepikatzea, mamia izan dezakeen oharra izatea eta arreta deitzea. Adierazgarriak ez diren oharren kasuan, mami gutxi duten oharrak izan dira.
2. Pausoa: Marko teorikoaren informazioa erabili da koadernoko informazioa berriro ere hautatzeko. Autore erreferenteak:
 - Errespetuaren gakoa: Maturana (1992)
 - Bizikidetzeta eta ikaskuntzaren erlazioa: Ianni (2003)

- Harremanen garrantzia, taldean lan egitea eta taldekatzeak: IK/KI programa (2016)
 - Ikaskuntza indibidual eta soziala, eta giroa: Davini (2008)
 - Talde barruan autonomia: Agirre Dorronsoro (2018)
 - Harremanen antzekotasuna: Zupiria (d.g)
 - Kultura-aniztasuna: Barquin (2006)
 - Gatazkak: Aguilar eta Ruiz de Lobera (2006)
3. Pausoa: Lortutako informazio guztiarekin lehen analisia zirriboratu da, zalantzazko puntuak edo puntu ilunak seinalatuz.
 4. Pausoa: Elkarrizketa erabili da osagarri gisa, lehen analisiko zalantzak argitzeko eta kontrastatzeko.
 5. Ondorioztatzea: Bukatzeko, azken hausnarketa egin da, lan osoaren berrikusketa egin ostean.

5. Emaitzak

Argi dago adinka banatuta dauden eskoletan adin segregazioa gertatzen dela, hau da, homogenizazioa sortzen da. Modu honetan, botere harremanak sortzen dira, behatutako gelaren kasuan; irakasle-ikasle, irakasle-ni eta ni-ikasle. Botere indartsuak dira eta era honetan, jardueren agintea irakasleak du. Beraz, haurrak behartuak daude jarduera zehatzak egitera. Honek ordea, bizikidetza bermatzea ez ezik, bizikidetza oztopatzea eragin dezake. Beraz, egoera batzuen errudun irakaslea izan daiteke, bere esku baitago klasearen dinamikaren norantza finkatzea.

Aztertutako gelaren kasuan, Liernirekin egindako elkarrizketan, hauxe dio; *mugimendu autonomoa jarraitzen dudanez, ikasleei utzi behar zaie bere ezagutzak eraikitzen, bere garapena automatikoki egiten eta beraz, ezin diozu behartu zeinekin ibili behar den eta zeinekin ez. Azken finean, haurrak aukeratzen du zertan jolastu, noiz jolastu eta norekin (...) Proiektuetako talde lanetan saiatzen naiz (...) itxita dauden taldeak bereizten beste batzuekin harremanak izateko.*

Hortaz, Lierniren hitzetatik ondorioztatu daiteke, mugimendu autonomoan daudenean ez dagoela botere harremanik, aldiz, proiektuetan irakasleak hartzen du boterea eta haurrak behartuta daude proposatutako jarduerak egitera baita ikasle konkretu batzuekin egitera ere.

Beraz, eskolaren metodologiak eragina izango du ikasgelan baita irakaslearen ekintzek ere, botere harremana sortzeko garaian.

Matrize soziokulturalen kasuan, batzuetan botere-harremanak intramatrizean sortzen dira, hau da, adibidez, generoaren eremuan, berdintasunezko harremanak sortu ordez, neska batek boterea beregana dezala beste nesken gainean, matrizeko gainerako elementuetan berdintasuna dagoenean, klase sozial bera, etnia bera, adin bera, auzo bera... Aztertutako kasuan, nesken kasua litzateke argiena: *Mutilak irekiagoak dira eta beraien artean harremanak izateko hobeto ibiltzen dira. Nesken artean beti gertatzen da 2-3-4ko taldeak egiten direla eta gero talde horietara sartzea zaila dela, kostatu egiten da. Hemen ikusten da euskara daukatenak Jare,*

Miren, Ane, Nerea eta Maren direla eta bestetik Amaia, Paula, Maria eta Ainhoa daude beraien artean ibiltzen direnak (batez ere binaka) (...) Oro har, neskak itxiagoak dira. Beste adibide garbi bat: Mirenek ezin zuen puzzlea bukatu eta Jare berarengana hurbildu da laguntzera. Azkenean, Miren Jareren laguntzaile bilakatu da.

Gelan sortu diren botere-harremanak jabegabetu egin behar dira eta harremanak horizontalak izatera bideratu. Izan ere, ezin da bizikidetzeta sustatu harreman bertikalak badaude gelan.

Gelan ikusitako harreman bertikal batzuk euskararengatik sortu dira, hizkuntza hori dutenei boterea eman zaielako beste ikasleen gaineratik. Hortaz, harreman horizontalak izatea nahi badugu, hizkuntzak hartu duen botore hori aldatu beharko da.

Kasu honetan euskarari boterea eman bazaio ere, hizkuntza guztiak jabegabetu behar ditugu, inor gailendu ez dadin. Haur bat ezin dugu besteen gaineratik jarri hizkuntza ondo menperatzen duelako, bestela bertikalizatu egiten dugu gainerako hurrekiko eta, ondorioz, zaildu egingo dugu konfiantzazko harremanak sortzea. Horregatik, sentsibilitatez aritu behar dugu, euskararen erabilera sustatu bai baina euskaraz ondo aritzen diren haurrak besteen gaineratik kokatu gabe.

Azken batean, hizkuntza, harremanen elementu bat da, eta ahozkitasunean oinarritu behar gara, komunikatzeko modu asko elkarlotzen baititu eta: soinua, begiradak, gorputza... Hizkuntza elementu gisa harturik jabegatu egingo dugu. Beraz, enfasia ahozkitasunean jarri behar dugu, hizkuntza komunikatzeko tresna soilik baita.

Behaketan zehar egiaztatu dut Zupiriak (d.g) esandakoa, alegia, harreman antzekoak eraikitzeke joera dagoela. Ikusi dudanagatik, haurrak harremanak izateko era berdinak erabiltzen dituzte pertsona ezberdinekin, seguruenik, etxean, auzoan edo komunikabideetan ikusitakoa erreproduzitzen. Bestetik, ikasleen arteko harreman batek ez duenean funtzionatzen, harremana apurtu egiten da, ez dute harremana mantentzeko saiakerarik egiten.

Azpimarragarria iruditu zait orokorrean, neskak binaka ibiltzen direla eta harreman itxia dutela beraien artean eta mutilen kasuan, hiruko taldetxoetan egoten direla baina irekiagoak direla. Nabaritu dut haurrek harreman finkoak sortu dituztela eta ez direla erlazio berriak egitera saiatzen. Eraiki dituzten erlazioak oso sendoak dira baina eragozpen bat dago. Haurra bere bikotearekin bakarrik ibiltzen bada, besteekin erlazionatu gabe, haur honen laguna eskolara etorri ezean, bakarrik sentituko da, galduta. Egoera hau hainbat alditan gertatu da; *jolastokira joaten lehenak izan gara. Haurrak jolasten hasi dira eta bi talde sortu dira (...) Izaskun ordea bakarrik geratu da txoko batean, jolasetan parte hartu gabe; Miren, Lierni eta nirekin eserita egon da psikomotrizitatea saioan, Jarerekin jolastu nahi zuelako eta ez delako etorri; psikomotrizitate saioan, Izaskun bakarrik jolasten ibili da, Eneko, bere laguna, etorri ez delako.*

Egoera hauen aurrean, beharrezkoa ikusten sozializatzeko dituen trabak identifikatzea eta gainditzen laguntzea eta harreman berriak eraikitzen sustatzea, haurrak bakarrik edota galduta senti ez daitezen.

Bukatzeko, Aguilar eta Ruiz de Loberak (2006) dioten moduan, eskola elkarbizitzarako gunea da, gatazka sortzen diren lekua eta kultura-aniztasunak areagotu egiten ditu gatazkek sortzeko aukerak. 4 urteko gelan gatazkek egunero gertatzen dira; batek bestea jo duela, lagunaren ondoan eseri nahi duela eta ez duela eseritzeko lekurik... gatazka hauek ohikoak direla esan genezake, adinari atxikitua.

Baina gela barruan ia egunero gatazkek sortzen dituen masajea da. Esate baterako; *masajearen garaian, guztiak binaka jarri dira bi izan ezik, Peio eta Paula; masajeen Mirenek ez zuen Amaiarekin jarri nahi, Amaiak ordea berarekin bai; masajeen Mariak ez zion Amaiari masajea eman nahi.* Gatazkek sortzen diren ekintza dela ikusi daiteke eta beraz, egokiena litzateke ekintza ordezkatzeko. Masajearen ordezkari, lurrean etzan daitezke musika erlaxagarria entzuten. Jarduera hau egun batez egin zen eta ondo atera zenez, gehiagotan errepika daiteke, beste erlaxatzeko modu batzuekin trukatur.

Bestetik, gatazkak kultura-aniztasunagatik ere izan daiteke. Bi kasu azpimarragarri eman dira; *Peiok paper arrosa hartu du eta Paulak (bere bikiak) hori ezin duela hartu esan dio, kolore hori neskena dela; Paulak, mutilek belarritakoak ezin dituztela eduki esan du, hori neskentzat dela*. Bi kasutan neska beraren hitzak dira. Ez zait arraroa egiten ikasleak hori esatea, familia bat kexatu egin baita ikasle horren amak iruzkin desatseginak esaten dituela gurasoen aurrean, esaterako: *Kimetzek batzuetan azazkalak margotuta eramaten dituela eskolara eta askotan aurpegia unikornioz marrazten duela eta hortaz, gaya aterako dela umea. Iruzkina behin baino gehiagotan esanez*. Amaren jarrera ikusi ondoren, normala da ikasleak etxean ikusitakoa islatzea.

Gatazkak alde batera utzita, ikusi daiteke haurren artean asko laguntzen diotela elkarri. Esate baterako, *Josu eta Mikelek elkarri lagundu diote arropa janzteko; Mikelek bere mantala jantzi beharrean Josurengana joan da gaizki ipintzen zegoelako; Aritz negarrez jarri da eta Josu beregana hurbildu da kontsolatzera. Gero, Peio joan zaio altxatzen laguntzera jantokira joateko*. Akzioa hauetan elkar laguntzen direla ikus daiteke.

6. Ondorioak

Aurretik esandako guztiarekin hainbat kontu atera daitezke. Hasteko eta garrantzitsuena, bizikidetzaren oso konplexua dela eta bere barnean hainbat eragile daudela eragin dezaketenak.

Bestetik, jakin beharrezkoa da, taldean aritzeko beharrezkoa dela autonomia, errespetua eta enpatia izatea. Modu honetara, talde lanean aritzeko aukera dago eta honek ikaskuntza indibiduala zein soziala garatzeko bidea emango du.

Harremanak eta hizkuntzaren kasuan, ekar dezakeen botere-harremana gaitzetsi behar da, baita intramatrizeak ere, boterea bereganatzen duen orori jabegabetuz. Harremanen kasuan, harremanak birmoldatu behar dira, harreman bertikaletik horizontalera eramanez. Hizkuntzaren kasuan, gauden herrialdean gaudelarik, hizkuntza guztiak onartuak izan behar dira eta hizkuntzaren botereari uko egin, inor gailendu ez dadin. Azken finean, hizkuntza komunikatzeko tresna gisa hartu behar da eta ahozkotasunean oinarritu.

Beraz, pertsonak ez dira aldatu behar, erlazionatzeko modua baizik. Eskolaren kasuan gainera, harremanak lehenengo planora eramanez behar litzuke edukiak bigarren plano batera eramanez.

Horrenbestez, beharrezkoa da egitura horizontala lehenestea eta matrize soziokulturalaren elementuren bat edukitzeagatik boterea sentitzen duten pertsona ororen jabegabetzea bizikidetzaren dinamizatu nahi bada.

7. Mugak eta hobekuntza proposamenak

Ikerketa honen hutsuneak nabariak dira. Ikerketa, gela bakar batean ateratako emaitzetan oinarritua dagoenez, errealitate zehatz bat islatzen du. Beraz, ikerketa oso mugatua da. Ikerketa sakon bat gauzatzeko eskola ezberdinetako hainbat gela aztertu beharko litzateke ondorioztapen zabalago bat eskuratzeko. Egindako ikerketari jarraipena emateko, hiru ikerketa-bide hauek proposatzen ditut:

Alde batetik, bizikidetzaren hitza oso zabala eta konplexua denez, ikerketa jabegabetzearen inguruan sakonduko nuke. Bertan, gela baten barruan boterea dutenei jabegabetzen. Gainera, jabegabetzeko ekintza ezberdinak aztertu nahiko nituzke eta nola egin daitekeen, gela batean aplikatzeko.

Bestetik, ikerketari beste norantza bat emango nioke, Ablanedok (2018) eta Camisonek (2018) proposatzen duten autorregulazioaren ereduaren aplikazioan. Modu honetan, ikusi genezake ereduak zer eragin duen, zein onura eta zein kalte. Eta honetatik abiatuta, gaur egun Euskal Herrian dagoen sistema eragingarria den ala ez eta aldatu behar ote den autorregulazioaren orde.

Azkenik, gela barruan soziograma bat eratzea proposatzen dut. Haurren erlazio sareetan gehiago sakontzeko aukera izango genuke eta bizikidetzaren lantzeko egokiak diren estrategiak erabili. Bestetik, gelan egiten diren dinamikek zer eragin duten erlazioen sarean jakin genezake eta horrela, irakasleak metodo egokia erabiltzen duen ala aldatu egin behar duen ondorioztatu genezake.

8. Erreferentzia

Ablanedo, A. (2018). Harreman osasuntsuak. *Hik Hasi*, 32, 16-17.

Agirre Dorronsoro, L. (2018). Atxikimendua, taldetasuna, parte-hartzea, euskaltzaletasuna, feminismoa. *Hik Hasi*, 32, 6-10.

Aguilar, T., Ruiz de Lobera, M. (2006). Kulturarteko hiritartasuna eraikitzea eskolan. *Jakingarriak*, 58, 28-33. Webgune honetatik berreskuratuta: <http://ebiltegia.mondragon.edu/xmlui/bitstream/handle/20.500.11984/1543/JAKINGARRIAK%2058.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

Álamo Santos, M. (2011). La idea del cuidado de Leonardo Boff. *Revista Tales*, 4, 243-253. Webgune honetatik berreskuratuta: https://revistatales.files.wordpress.com/2012/05/243_nro4nro-4.pdf

Barquin, A. (2006). Eskola eta euskara: etorkinen seme-alaben integrazioarako giltzarriak. *Jakingarriak*, 58, 34-43. Webgune honetatik berreskuratuta: <http://ebiltegia.mondragon.edu/xmlui/bitstream/handle/20.500.11984/1543/JAKINGARRIAK%2058.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

Barquin, A. (2009/10). Etorkinen seme-alabak: zer gertatzen ari da?. *Hik Hasi*, 143, 29-32. Webgune honetatik berreskuratuta: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20100101/etorkinen-seme-alabak-eskolan-zer-aldatzen-ari-da>

Barquin, A. (2018). Eskolan generoa eta kultura-aniztasuna gurutzatzen direnean. Gogoeta bat. *Hik Hasi*, 32, 47-52.

Boff, L. (2002). *El cuidado esencial*. Madrid: Trotta

Camison, M. (2018). Haur izatearen erronka. Autoerregulazioa: utopia ala errealitatea?. *Hik Hasi*, 32, 18-26.

Davini, M. X. (2008). *Métodos de enseñanza: didáctica general para maestros y profesores*. Buenos Aires: Santillana. Webgune honetatik berreskuratuta:

<https://elegirladocencia.files.wordpress.com/2014/09/davini-maria-cristina-metodos-d-e-ensenanza.pdf>

Delors, J. (1996). *La educación esconde un tesoro*. Madrid: Santillana-UNESCO

Encina, J., Ávila, M. A. (2015). El desempoderamiento. *Autogestión de la vida cotidiana*, 5, 5-82. Sevilla/Donostia: Colectivo de Ilusionistas Sociales eta Ilusionista Sozialen Mintegia. Webgune honetatik berreskuratuta: https://ilusionismosocial.org/pluginfile.php/1168/mod_resource/content/2/EI%20Desempoderamiento_Jabegabetzea_AutonomyAutog_5.pdf

Encina, J., Ezeiza, A. & Delgado, N. (2019). Diversidad lingüística y matriz sociocultural. *Trabajando la lengua desde una perspectiva dialéctica: algunos apuntes sobre lengua y complejidad*, 87-124. Gasteiz: ISM-UPV/EHU, UNILCO-espacio nómada, Universidad Libre para la Construcción Colectiva.

Freire, H. (2018) Ongizatea, tratua eta demokrazia eskolean. *Hik Hasi*, 32, 34-38.

García Correa, A., Ferreira Cristofolini, G. M. (2005). *La convivencia escolar en las aulas*. International Journal of Developmental and Educational Psychology, (2), 1, 163-183. Webgune honetatik berreskuratuta: <https://www.redalyc.org/pdf/3498/349832309012.pdf>

Hik Hasi (2009) Zertaz ari gara proiektuen bidezko metodologia aipatzen dugunean? Zein dira metodologia horren ezaugarriak? Eta abantailak?. *Hik Hasi*, 140. Webgune honetatik berreskuratuta: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20090701/zertaz-ari-gara-proiektuen-bidezko-metodologia-aipatzen-dugunean-zein-dira-metodologia-horren-ezaugarriak-eta-abantailak>

Ianni, N. D. (2003). Convivencia escolar: una tarea necesaria, posible y compleja. *Monografías virtuales*, 2. Honako webgune honetatik berreskuratuta: <https://www.oei.es/historico/valores2/monografias/monografia02/reflexion02.htm>

Illich, I. (2003). *La convivencialidad*. México

Jorba, J. (2000). La comunicación y las habilidades cognivolingüísticas. Jorba, J., Gómez, I., Prats, A. (ed.), *Hablar y escribir para aprender. Uso de la lengua en situación de enseñanza- aprendizaje desde las áreas curriculares*, 29-49. Barcelona: UAB-ICE, Síntesis

López Martín, R., García Raga, L. (2006). Convivir en la escuela. Una aproximación reflexiva a sus fundamentos pedagógicos. *Revista Pedagogía y Saberes*, 24, 85-97.
Webgune honetatik berreskuratuta:
<https://revistas.pedagogica.edu.co/index.php/PYS/article/view/6786/5542>

Marina. J. A., Bernabeu, R. (2007). *Competencia social y ciudadana*. Madrid: Alianza Editorial

Maturana, H. (1992). *Emociones y lenguaje en educación y política*. Chile: HACHETTE/ COMUNICACIÓN

Max-Neef, M. (1994). *Desarrollo a escala humana*. Barcelona: Ed. Icaria

Pahkin, L. (2018). Zer eratako harremanak sustatzen dira Finlandiako Hezkuntza Sistemak, eta nola. *Hik Hasi*, 32, 11-15.


Pujolàs, P., Lago, J. R. koord. (2016). *IK/KI programa: taldean ikasten irakasteko. Vic-eko unibertsitatea*. Webgune honetatik berreskuratuta:
https://www.anaitasunaikastola.net/wp-content/uploads/2016/10/IKASKUNTZA_KOO PERATIBOprograma_oso_a_euskaraz.pdf

Zupiria, X. (d.g). 1. *Pertsonen arteko harremanak. Orokortasunak*. EHU. Webgune honetatik berreskuratuta:
http://www.ehu.eus/xabier.zupiria/liburuak/harremana/gaixoa_1.pdf

9. Eranskinak

ERANSKIN 1:

Talde heterogeneoak sortzeko, ikasleak hiru azpitaldetan banatu behar dira:



ERANSKIN 2:

EGUNEROKOA

*Oharra: Haurren izenak ez dira errealak eta beraien pribatutasuna mantentzeko ohar batzuk ezabatu dira.

2019/11/29

- Masajearen garaian, guztiak binaka jarri dira bi izan ezik, Peio eta Paula. Irakaslearen esku hartzearen ondoren batera jarri dira.
- Peiok ezin zuen jantokiko mantala jantzi, Paula laguntzera hurbildu da baina ez dio utzi, Mikelek bakarrik lagundu zezakeela esan dio eta halaxe izan da, Mikelek lagundu dio.

2019/11/30

- Pribatua
- Pribatua
- Liernik Josuri zapatilak alderantziz jartzen ari zela esan dio eta Mikel beregana hurbildu da laguntzera. Liernik Josuri bera bakarrik jantzeko esan dio.
- Pribatua

2019/12/03

- Pribatua
- Pribatua

2019/12/04

- Masaje garaian, Mirenek ez zuen Amaiarekin jarri nahi, Amaiak ordea bai. Azkenean, Liernik Amaiari eman dio eta Miren masaje gabe geratu da. (Mirenek irakaslearekin jarri nahi zuen)
- Pribatua

2019/12/05

- Pribatua

2019/12/09

- Pribatua
- Liernik lehengo bilerak izan ditu eta Kimetzen amak esan dio, Paula eta Peioren amak haurrak jasotzerako garaian iruzkin desatseginak esaten dituela, Kimetzek batzuetan azazkalak margotuta eramaten dituela eskolara eta askotan aurpegia unikornioz marrazten duela eta hortaz, gaya aterako dela umea. Iruzkina behin baino gehiagotan esanez.

2019/12/10

- Masajearen garaian, Mariak ez zion Amaiari masajea eman nahi.
- Pribatua
- Koloretako paperak hartu dituzte marrazteko. Peiok paper arrosa hartu du eta Paulak (bere bikiak) hori ezin duela hartu esan dio, kolore hori neskena dela. Liernik koloreak ez direla sexuaren arabera bereizten azaldu die. Peiok azkenean kolore arroseko papera hartu du.
- Pribatua
- Josu eta Mikelek elkarri lagundu diote arropa janzteko.

2019/12/11

- Pribatua
- Miren masajerik gabe geratu da ez Maria ez Paularekin jarri nahi ez zuelako.

2019/12/12

- Pribatua
- Pribatua
- Pribatua
- Pribatua

2019/12/13

- Pribatua
- Pribatua
- Pribatua

2019/12/16

- Pribatua
- Pribatua
- Pribatua
- Masajearen ordez, lurrean etzan dira musika erlaxagarri batez lagunduta. Ez da gatazkarik egon.

2019/12/17

- Pribatua
- Pribatua
- Jolastokira joaten lehenak izan gara. Haurrak jolasten hasi dira eta bi talde sortu dira, batzuk lasterketetara jolasten eta besteak karratua. Izaskun ordean, bakarrik geratu da txoko batean, jolasetan parte hartu gabe. (Beti Enekorekin jolasten du baina gaur etorri ez denez bakarrik geratu da).

2019/12/18

- Pribatua
- Jolas librean ginela, Eneritz bakarrik egon da, galduta, bere laguna ez delako etorri.
- Pribatua

2019/12/19

- Pribatua

- Gelako guztiak guztiz aztoratuak zeuden, Manex izan ezik, bere lasai-lasai zegoen plastika txokoan bere ipuina marrazten.
- Gelako haur batzuekin belarritakoez hitz egiten ari nintzen, neskek belarritakoa izaten dutela eta zergatik Amaiak eta nik ez genuen. Paulak, mutilek belarritakoak ezin dituztela eduki esan du, hori neskentzat dela. Nire aldetik, ulertarazten saiatu naiz belarritakoak nahi dutenek jartzen dutela, sexuan erreparatu gabe. Esaterako, jantokiko begiraleak, Asierrek, mutila izanik baduela.

2019/12/20

- Gelako ikasle asko baserritarrez etorri dira, lau ikasle izan ezik. Arrazoiak agian gurasoak etorkinak direla izan daiteke baina azpimarratuko nuke guraso etorkinak dituzten beste haur batzuk baserritarrez etorri direla.
- Pribatua
- Pribatua

2020/01/07

- Pribatua
- Plastika txokoan Ane eta Nerea elkar lagundu dira zeloaren punta bilatzen.
- Mirenek ezin zuen puzzlea bukatu eta Jare berarengana hurbildu da laguntzera. Azkenean Miren Jareren laguntzaile bilakatu da.
- Pribatua

2020/01/08

- Pribatua
- Pribatua

2020/01/09

- Eraikuntza txokoan Manex, Josu, Aritz eta Peio zeuden. Manexek agintzen zien nola egin errepidea. Aritz eta Peiok kasu egin die baina Josuk berak nola egin nahi zuen esan dio. Azkenean, errepidea nola egin adostu dute.
- Aritz negarrez jarri da eta Josu beregana hurbildu da kontsolatzera. Gero, Peio joan zaio altxatzen laguntzera jantokira joateko.

- Mikel, Unai eta Hodeiek elkarrekin egin dute puzzlea.

2020/01/10

- Pribatua
- Pribatua

2020/01/13

- Miren, Lierni eta nirekin eserita egon da psikomotrizitatea saioan, Jarerekin jolastu nahi zuelako eta ez delako etorri. Gu animatzen egon gara eta halako batean Nerea, Maren eat Eneritz hurbildu dira eta beraiekin joan da jolastera.
- Pribatua

2020/01/14

- Pribatua
- Pribatua
- Paulak ezin zuen puzzlea osatu eta Unai gerturatu zaio laguntzera.
- Mikelek bere mantala jantzi beharrean Josurengana joan da gaizki ipintzen zegoelako.

2020/01/15

- Pribatua
- Unaiak Josuri mantala gaizki jantzita zuela esan dio eta haserretu egin da

2020/01/16

- Pribatua
- Pribatua

2020/01/17

- Pribatua

2020/01/20

- Psikomotrizitate saioan Izaskun bakarrik jolasten ibili da, Eneko, bere laguna, etorri ez delako.
- Pribatua

2020/01/21

- Ez da ezer adierazgarririk gertatu

2020/01/22

- Pribatua
- Pribatua

2020/01/23

- Jangelatik Aritz triste etorri da eta Liernik zer gertatzen zitzaion galdetu dio korroan ginela. Aritz alaitzeko zer egin genezaken galdetzean askok Aritzengana hurbildu dira besarkada ematera.

2020/01/24

- Pribatua

ERANSKIN 3:

*Oharra: Haurren izenak ez dira errealak eta beraien pribatutasuna mantentzeko izenak aldatu dira

ELKARRIZKETA

- **Gelan dauden harremanak osasuntsuak dira?**

Orokorrean bai baina beti dago baten bat nagusitasun gehiago duena eta saiatzen dena bestea dominatzen. Baina orokorrean bai, osasuntsuak dira, ez dago arazo larririk.

- **Orduan, esan genezake bizikidetzazko harremanak daudela?**

Nik uste dut baietz baina oso itxiak daude neskak batez ere. Nik uste dut nesken artean harreman estuagoak daudela mutilen artean baino. Mutilak irikiagoak dira eta beraien artean harremanak izateko hobeto ibiltzen dira. Nesken artean beti gertatzen da 2-3-4ko taldeak egiten direla eta gero talde horietara sartzea zaila dela, kosta egiten da.

Hemen ikusten da euskara daukatenak Jare, Miren, Ane, Nerea eta Maren direla eta bestetik, Amaia, Paula, Maria eta Ainhoa daude beraien artean ibiltzen direnak (batez ere binaka, Amaia-Paula eta Maria-Ainhoa) eta Izaskun handik eta hemendik aritzen da. Neskak itxiagoak dira.

- **Bizikidetzako trebetasunik ezagutzen duzu?**

Harremanetarako daukazun enpatia, besteen lekuan jartzea... Azkenean emoziozko erremintak dira beharrezkoak.

- **Harremanen kalitateak zer faktoreren menpe dago?**

Nik uste dut pertsonaren izaera, pertsonak bere buruarekiko duen konfiantza, besteengan irekitzeko duen konfiantza eta sozialatzeko zer erreminta duen ume horrek eragin dezakeela. Haurra itxia baldin bada, gehiago kostatuko zaio harremanak izatea eta agian ez da hain osasuntsua izango edo ikasle batek etxean duen egoerarengatik oso tiranoa baldin bada etxean gurasoak horrelakoak direlako, gero berak ere horrelako harremanak izango ditu besteekin. Orduan etxean dugun ingurunea, bera nolakoa den eta zer trebetasun erakusten duen garrantzitsua da.

- **Nola sustatzen dituzu harremanak? Ze estrategia edo metodo erabiltzen duzu?**

Mugimendu autonomoa jarraitzen dudanez, honek esaten du ikasleei utzi behar zaiela bere ezagutzak eraikitzen, bere garapena autonomikoki egiten eta beraz, hor ezin diozu behartu zenekin ibili behar duen eta zeinekin ez. Azken finean, haurrak aukeratzen du zertan jolastu, noiz jolastu eta norekin. Orduan saiatzen naiz ez behartzen norbaitekin ibiltzen eta bakoitza nahi duenarekin ibiltzea. Baina ikusten badut ume batek ezetza asko jasotzen dituela, saiatzen naiz talde lanetan bere lagunak ez dianekin jartzen. Azkenen jolasak egiten "sagu txiki" eta abar, hori sustatzeko da, patioan harreman horiek sustatzeko. Beti jolas bidez, Haur Hezkuntzan beste modu batean ezin da.

Proiektuetako talde lanetan saiatzen naiz banantzen. Pixka bat bat gidatuagoa den saioetan saiatzen naiz eskua sartzen. Hodei eta Unai, Jare eta Miren, Nerea eta

Ane... banantzen, itxita dauden taldeak bereizten beste batzuekin harremanak izateko.

- **Nola sortzen dituzu taldeak?**

Batez ere aurreko irizpidea eta euskara.

- **Harremanen kasuan, bilakaera bat egon da hasieratik kurtso erdira?**

Bi urtetatik batera daude eta gurasoek esan zidaten hiru urteko gelan hasi zirela batzuk lagunak izaten, Nerea eta Aneren kasuan, 2 urteko gelan ez ziren ibiltzen eta aurreko urtean hasi ziren eta orain ere jarraitzen dute. Puntu honetan bien arteko harremana berdin ikusten dut, egia da orain Nereak Ane jangelan ez duenez gehiago ari dela zabaltzen. Bestela neskak oso itxita daude. Mutilen aldetik bai ikusten dut Iker eta Xabi ere aurreko urtean hasi ziren. Nik uste dut aurreko urtetik hasi zirenez orain nahiko mugatuta daudela. Diferentzia handirik ez dut ikusten orokorrean.

- **Kolektiboan zerbait egiten duzu?**

Jolasak, esaterako patio jolasak, talde sena sustatzen dugu. Azkenean libre utzi nahi badiezu, hauek oso gidatuak dira... Mota hauetako jolasak denetarako erabiltzen dituzu, euskara sustatzeko, taldea sustatzeko... Bestela ez dut ezer berezirik egiten. Nik uste dut jolas hauen bitartez lantzen dela.

- **Autonomia izatea eta taldean aritzea posible da?**

Bai. Nik uste gauza bat dela zuk gauzak zure kabuz egitea eta inizatiba edukitzea eta hori guztia onuragarria dela talde lanerako, azkenean inizatibarik edo independentzik ez duen umeak ardi talde bat bezala doaz, liderraren atzetik. Azken batean, eztabaidak egon behar dute, iritzi ezberdinak egon behar dira... hori dena osasungarria da talde lanean ibiltzeko.

- Inoiz probatu duzu taldeak kulturaren arabera egitea?

Ez, saiatzen naiz kulturalki ere bereizten. Etorrinak alde batean eta besteak bestetik ez jartzen. Saiatzen naiz euskara eta kultura aldetik dena bereizten, taldeak heterogeneoak izaten. Adibidez, talde lana egiteko IK/KI bidez, Ikasteko kooperatu eta kooperatzen ikasi. Teknika ezberdinak daude, “arkatzak erdira” “orri birakaria”. Talde bat sortzen da gaitasun ezberdinen arabera, euskara maila, (irizpide batzuen arabera) eta rol ezberdinak daude (idazkaria, bozeramailea, arduraduna) baina rol hauek Haur Hezkuntzan ez ditut jartzen Lehen Hezkuntzarako da.

Interesgarria da 1,2,4 matematiketan, aurrena zuk egiten duzu buruketa, gero binaka egiten da eta azkenik taldeka. Taldean arazoaz hitz egiten da eta bozeramaileari galdetzen zaio eta honek lauengatik erantzuten du.

Arkatzak erdira jardueran, arkatzak erdian uzten dira eta adibidez taldean izena adostu behar da eta adostasun batera iritsi arte ezin dira arkatzak hartu bakoitzak bere orrian idazteko.

Horrelako gauzen bidez talde sena lantzen da, heterogeneotasuna... Oso zaila da eta elkarbizitza askotan ikusten da nota onak ateratzen dituenak besteei tiraka hasten dela eta besteak ez badu nahi, talde guztia izorratzen du. Horrelakoetan, enpatian landu behar da, besteen lekuan jartzea, besteengatik egin behar izatea bestela besteei izorratzen diozu...

- Norbaitek “ez naiz zure laguna” esatean duenean zer egiten duzu?

Saiatzen naiz umeei ulertarazten eta besteen lekuan jartzen. Ez diot behartzen bere laguna izatera. Mugimendu autonomikoaren ikuspegitik ume bakoitzak bere harremanak eraiki behar ditu, berak nahi dituen bezala eta nahi dituenen. Orduan saitzen naiz, “zure gustatuko litzaizuke besteak esatea ez duela zure laguna izan nahi eta bakarrik uztea”. Nik uste dut beti funtzionatu behar dugula enpatiaren aldetik, besteen lekuan jartzen, zuri egitea gustatuko ez litzaizukeena ba besteei ez egitea. Nik uste dut hori dela dugun aukera bakarra, behartuta ez da ezer lortzen, gero buelta ematen dugun heinen, haurra bere aldetik doa.

Konpromizu batean uzten dizu, mugumendu autonomoan, Lasarteko berritzegunean eta egin ditudan ikastaroetan esaten ziguten, proiektuekin bezela zela, proiektua ez da egiten mailaka, orain gelaka egiten da, ikasgelan 23 ikaslek dituzte interes berdinak denei interesatzen zaie dinosaurioak, denei interesatze zaizkie? Ez. Mugimendu honetatik hitz egiten da mikro proiektuetaz eta proiektuak talde txikian egitea eta ez 3 hilabetekoa, agian hartu eta pare bat egunetako proiektuak. Esaterako, panpinekin jolasteko etxe bat eraiki nahi dut jolasteko, ba zer behar dut... 2, 3, 4, pertsonatako proiektu txikietaz.